

Garbine Ubeda Goikoetxea

Atahualpa Yupanqui handiaren lorratza

Data biribildu batek, jaiotzaren mendeurrenak hain justu, berriro dizkigu han-hemenka Atahualpa Yupanqui abeslari eta folklorista argentinarren aipamenak.

Arrastoa galtzen hasia bada ere, autore maitatua eta mila bider imitatua izan genuen sasoirik onenean. Ikono soziokultural gisan famatu zutenek, erreferentzia nagusitzat hartu zutenek edota, gerora, beste abeslari batzuen bidez ezagutu genuenok ere berdin, interpretazioaz harago dauden merituak aitortu genizkion; gitarra jotzeko trebezia aparta eta ahots sakon-sarkorra bera gaingiditzen duten balioak goraiatu; 60-70 hamarraldietako kantugintzak zabalduak etika eta estetikaren lehen oinarriak finkatu izana txalotu.

Argentinako bidezidorrik ahantzienetara, bazterrik baztertueneraino eramango zuen bidaia sonatuak hunkitu gintuen, halaber. Gurdi gaineko *On the road* batean imajinatu genuen, 1.500 inguru konposizio kreol sortu nahiz batzera bultzatu zuen barne sen horri bide ematen, inbasioaren oinartzatza besterik ez zegoen tokietan herri identitatea esnatzen, gizon-emakume anonimoen bitartez historia berridazten eta, zainetatik tiraka, bere odol indio, kreol eta euskaldunaren nahasketa aldarrikatzen.

Atahualpa Yupanqui handiaren lorratzak poeta konprometitua eta buru-belarri konprometitzeagatik hil zituztenak ekartzen dizkigu gogora ezinbestean, gure zoritxarrerako oso gaurkoak ditugun gaiak. Esate baterako, ahots, ideia, hizkuntza eta kultura ixilaraziak, inperialismoaren aurkako borroka, erbestea, sekula ahanzterik izan ez dugun tortura.

Eta segidan, aje guztiei aurre egiteko kemena galdu izanaz mintzo zaizkigun irudiak nagusitzen zaizkigu, lerroarteak irakurtzeko gogoa itzali dizkiguten oharrak, elkar hartzeko eta bide berriak jorratzeko ezintasunak. Gaur, betikotasunez jositako mintz batean bilduta baleude bezala azaltzen zaizkigu minbiziok, denboraren orratzek zula-



DANI BLANCO

tzen ez duten burbuila batean babestuta baleude bezala, esanaren poderioz zentzua galdu duten hitz huts eta monotonoz hizketan ariko bagina bezala.

AXOLAGABETZEN gaituen kemen eza geure kontzientziaren azterketetarako utzita, beste anakronismo mota bat leporatu nahiko nioke maisu handiari. Hala nola, emaztearen lanak bere obra zabalean aitortza zintzorik gabe kamuflatu izana; bizitza osoan izan zuen bidelagunaren ekarpenari, borondate onez izan bazen ere, izen-abizen propioak jarri ez izana, anonimotasunaren zakuan sartu izana. Orduko gizar-teak, orduko argentinarrek, atzerritar batekin ezkondu eta lankidetzan aritzea nekez barkatuko zioten beldurrez omen, Atahualpa Yupanquiren ibiliak aztertzen dituztenen lanetan aipatzen denez.

Emazteak, Paule Antoinette Pepin Fitzpatrick-ek, kantu eder ugari utzi zituen Atahualpa Yupanquiren altxorrean Pablo del Cerro bezalako ezizenez. Horiatarik batzuk, *Chacarera de las piedras* deiturikoa kasura, Yupanquiren gogoratuenetakoak eta interpretatuenetakoak dira oraindik ere

Emazteak, alegia Paule Antoinette Pepin Fitzpatrick-ek, Argentinako konpositore puntakoenen artean aurkitzen den musikari nazionalitatez frantziarrak, kantu eder ugari utzi zituen Atahualpa Yupanquiren altxorrean Pablo del Cerro bezalako ezizenez. Horiatarik batzuk, *Chacarera de las piedras* deiturikoa kasura, Yupanquiren gogoratuenetakoak eta interpretatuenetakoak dira oraindik ere.

Bihoakio, bada, mendeurren baten aitzakian paratutako nire gorazarrea omenaldien erdibidean gelditu den artista honi, eta bidenabar, itzalpetik atera ez diren emakumezko sortzaile anonimo guztiei. ■